

Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko duzun testuari lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela **zure euskara plazara ateratzea!**

JALGI HADI PLAZARA!

Zuen ingurua aprobetxatuta

- ✓ Eta... zer pentsatzen dute protagonista nagusiek? Hau da, zer pentsatzen dute umeei etxean ikastearen inguruan? Gustatuko litzaieke, ala, aitzitik, nahiago lukete orain arte bezala ikastolara joaten jarraitu? Ba al duzue eskola-garaian dagoen seme-alabarik, ilobarik, auzokiderik...? **Egiezu inkesta bat jakiteko ea gustatuko litzaiekeen, eskolara joan beharrean, etxean bertan ikastea. Haien erantzunak jasota, kontatu ikaskideei umeei zer pentsatzen duten gaiaren inguruan.** Baietz erantzunen batzuek harritu!

Internet aprobetxatuta

- ✓ Lan-unitatean zehar jorratuko dugun **gaian sakondu nahi?** Hona hemen sarean topatu ditugun testu interesgarri batzuk:
 1. *Hik hasi* aldizkariko artikulua: "*Etxean heztea: abantailak eta desabantailak*". [Hemen.](#)
 2. *Berria* egunkariko artikulua: "*Haurrak etxean hezteak etorkizuna du*". [Hemen.](#)
 3. *Berria* egunkariko artikulua: "*Haurrak etxean ala eskolan hezi?*". [Hemen.](#)

Animatu horietakoren bat irakurtzen eta ahoz laburbildu ikaskideei ikasitakoa.

- ✓ Hona hemen hezkuntzari lotutako gaiak jorratzen dituen aldizkari digital bat: www.hikhasi.eus/. **Animatu aldizkari horretako artikuluren bat irakurtzen eta ahoz laburbildu ikaskideei.**

